

bada ere, ez ditu laborarien munduan dauden industri eta laborarien kezka kentzen. Hain zuzen, FNSEA frantses laborari sindikatuak azaldu du, laborariei eman zaizkien laguntzak ez direla aski zehaztuak. «Harrigarria da nola herri batek hartzen ahal duen holako erabaki bat, ekartzen dituen ondorio guziei kasu egin gabe», esplikatu zuen Luc Guillotek, FNSEaren buruak.

Lehen ministroak beraz, azkenean hartu badu erabakia, plan honek ez ditu gune beltz guztiak zehazten. «Gehiegi begiratu die kontsumitzaileei eta ez aski horrekin bizi direnei», zehaztu zuen Guillotek.

Frantzia hori izan bada xedea ere, European ez ditu bazterrak baretu, eztabaida azkartu baizik. Zenbaitzuk, ikustean Frantziak suspentitu dituela irinak, bide bera aukeratu nahiko lukete Europarentzat; besteek aldiz ez.

European, eztabaida azkartu da

Frantzia, erabaki hau hartuz, sartzen da Erresuma Batuek eta Portugalak jadanik hartua zuten bidean.

Baina denak ez dute iritzi hori. «Holako erabaki bat ez da irtenbidea, Europako Batasunaren barneko beste herri batzuek ez dutelako uste erabaki hori dela balio-ko neurri bat», esan zuen atzo Pariseko Europako Batzordearen ordezkariak.

Eztabaidak ez du luzaz iraunen; 2001. urtetik goiti Europako herri guztietan behien entzefalopatia espongi-formea (BSE) eritasuna atzemateko proba zehatzak egitea aztertzen ari baita Europako Batasuna. «BSE eritasuna ezeztatuta duten herriek, jakinez Erresuma Batutik ekarri dituztela milaka abere irin beharko dute kudeatu probek ager-raziko dituzten abere kutsatuen kopurua; ikusiko dugu nola jasanen duten sortuko den kontradikzioa», azaldu zuen Frantziako Laborantza ministroak.

Hain zuzen ere Europako Batasuneko Albaitari Komiteak gaur eztabaidatuko du behi eroen gaitza atzemateko sistema hori onik dauden behiei aplikatzeko proposamenaren inguruan. Erabaki hori behi eroen kasuren bat izan duten herrialdeetan edo guztietan aplikatuko den ere eztabaidatu behar du Albaitari Komisia.

Denis Brillant • IPARRALDEKO HARAKINEN ELKARTEKO PRESIDENTEA •

«Kontsumitzaileen esku dago ez dadin edozein zikinkeria saldu elikagaia bailitzan»

DENIS BRILLANT Ipar Euskal Herriko artisautzako harakin eta buxerren elkar- teko lehendakaria da. Behi- eroaren afera dela eta azken egunotan leku guztietarik galdegiten diote bere iritzia. Krisi honetatik jendeak zer erosten eta zer jaten duen gogoetatuko duela da bere esperantza

■ Zer iritzi duzu Lionel Jospinek iragarritako neurrietaz?

Abere irinak debekatzea egin zitekeen gutienekoa da. Izan ere behi abelgorrienda- ko abere irinak 1996 urtetik daude debekatuak. Gerta- tzen dena da zerri eta bertze abereendako ziren irinak erabili dituztela zenbaitek behientzat, eta horrek kutxatu dituela. Hala ere ikusi nahi nuke nola egiten duten abere-irin guzti hori desagertarazteko.

■ Teknikoki diozu?

Bai. Milaka tona da abere- irin daude egun eta horiek desagertarazte ez da erraza izan. Ezin dira erre dioxina sortzen baitute. Gainera egun ekoizpen katea oso bat desagertuko litzateke. Ez dut soberarik sinesten. Ea behin betiko erabakia den.

■ Interes ekonomiko gehiegi eta presio sobera egonen da beharbada?

Segur baietz. Abere irinen ekoizpen industrial dago. Abere irinak ez dira soilik haragitarako balio ez duten abereen zatiak. Askotan haragia saltzea lortzen ez delarik, abere osoak bilaka- razten dira irin, eta horrela abereei bertze abere osoen irina ematen zaie jateko.



BOB EDME

Prezioak

«Ez da posible astean zehar kalitatezko janaria galdegitea eta gero asteburuan haragi ahal bezain merkea erosi nahi izatea saltegi handietan»

Guzti hori zergatik? Prezioen mantentzeko. Erokeria bat da gaur egun bizi duguna. Gehiegi ekoizten da, merke

eta kalitate txarrekoa. Horra hor ondorioak.

■ Idi-txuletak ere desagertuko omen dira?

Egia erran guk irratiz jakin dugu, ez baitigute deus erran zuzenean. Hala ere iduri luke behi abelgo- rrien bizkarrezurrari loturi- ko zatiak direla debekatu- ko. Hots, zenbait haragi zati hezurrik gabe salduko dira.

■ Eta hori posible dea?

Ez dakit. Haragiari hezu- rra kentzen badiote ez dakit nola garraiatuko duten. Gainera ez da hain ongi kontserbatzen. Ez dakit ere nola egingen duten mozteko.

Gutienekoa

«Abere irinak debekatzea egin zitekeen gutienekoa da. Hala ere ikusi nahi nuke nola egiten duten abere- irin guzti hori desagertarazteko»

■ Eta neurria egokia iduri- tzen zaizu?

Nik ez dut inolako arazo- rik ikusten. Harakin tipien- dako ez da trabarik sortze, hipermerkatuen sareek iza- nen dute arazo gehien. Pre- zioen borroka egiten duten horiek daude kezkatu- rik.

■ Hala ere haragiaren gai- neko psikosiak izanen du eraginik harakin tipiengan ere?

Denak zaku berean sar- tzeak kezkatzen gaitu. Hala ere espero dut egoera honek jendeari gogoeta batzuk egi- teko parada emanen diola. Ez da posible astean zehar kalitatezko janaria galdegi- tea eta gero asteburuan haragia ahal bezain merkea erosi nahi izatea saltegi handietan. Saltzaile han- diek nahi dutena egiten dute egun. Ohitura horiek aldatu behar dira, eta kontsumitzaileek dute lehen ardura. Kontsumitzaileen esku dago ez dadin edozoin zikinkeria sal, elikagaia bailitz bezala.

Hur Gorostiaga
BAIONA

ZARAUZKO UDALA

2000ko urriaren 25ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzak erabaki zuen ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ARAUDIAN sartutako aldake- tei hasierako onespina emate- a.

Espedientea jendaurrean jarri da, 2000ko abenduaren 15 arte, interesdunek udale- txeko Idazkaritza Nagusian bidezko derizkioten errekla- mazio eta iradokizunak aur- keztu ahal izan ditzaten.

Zarautz, 2000ko azaroaren 9a.
ALKATEA.

ZARAUZKO UDALA

2000ko urriaren 25ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzak erabaki zuen Ordenantza Fiskal bat- zuen aldaketek hasierako onespina ematea. 2001. ur- teko urtarrilaren 1ean inda- rrean sartuko dira.

Espedientea jendaurrean jarri da, 2000ko abenduaren 15 arte, interesdunek udale- txeko Idazkaritza Nagusian bidezko derizkioten errekla- mazio eta iradokizunak aur- keztu ahal izan ditzaten.

Zarautz, 2000ko azaroaren 9a.
ALKATEA.

ZARAUZKO UDALA

2000ko urriaren 25ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzak erabaki zuen EZKONDU GABEKO BIKOTEEN UDAL ERREGIS- TROARI BURUZKO ARAU- DIAREN 6. artikulua alda- ketek hasierako onespina ematea.

Espedientea jendaurrean jarri da, 2000ko abenduaren 15 arte, interesdunek udale- txeko Idazkaritza Nagusian bidezko derizkioten errekla- mazio eta iradokizunak aur- keztu ahal izan ditzaten.

Zarautz, 2000ko azaroaren 9a.
ALKATEA.

ZARAUZKO UDALA

2000ko urriaren 25ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzak erabaki zuen Udali Hilerriko zerbitzu- aren zeharkako kudeaketa for- ma onartzea, kontsezio admi- nistratiboaren bidez.

Espedientea jendaurrean jarri da, 2000ko abenduaren 15 arte, interesdunek udale- txeko Idazkaritza Nagusian bidezko derizkioten errekla- mazio eta iradokizunak aur- keztu ahal izan ditzaten.

Zarautz, 2000ko azaroaren 9a.
ALKATEA.